

# ETURA

– ARABA / ÁLAVA –

Etura herria Arabako hiriburutik 22 km-ra dago, ekialderantz, eta Agurain udalerritik 11,2 km-ra, mendebalderantz.

Herri hau Jerónimo Aznar gotzainaren herrien zerrendan dokumentatuta dago, 1257an, baita 1292an ere, Tarifako setiorako berrehun eta hogeita marabedi eman zituen eta. Etura herrixka Guevarako kondearena zen, Erdi Arotik jurisdikzio-jauna zena, baina beste herrixka batzuetako biztanleek urtean ordaintzen zuten bederatzi errealeko zergatik salbuetsita zegoen, bertan kapareak bizi ziren eta. Datu horiek *Gasteizko Elizbarrutiko Katalogo Monumentaletik* hartu ditugu. Gaur egun, Barrundia udalerrinari dagokio eta Aguraingo koadrila osatzen du.

La localidad de Etura se encuentra situada a 22 km al Este de la capital alavesa, y a 11,2 km al Oeste del municipio de Salvatierra-Agurain.

Se documenta esta localidad en la relación de pueblos del obispo Jerónimo Aznar en 1257, así como en 1292, cuando contribuye para el cerco de Tarifa con una cantidad de doscientos veinte maravedíes. La aldea de Etura pertenecía al Conde de Guevara, señor jurisdiccional desde la Edad Media, pero estaba exenta del impuesto de nueve reales anuales que pagaban los vecinos de otras aldeas, por estar habitada exclusivamente por hijosdalgos. Son datos que tomamos del *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*. En la actualidad pertenece al municipio de Barrundia y se encuentra formando parte de la cuadrilla de Salvatierra-Agurain.

## *Jasokundeko Andre Maria eliza* *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

ETURAKO ELIZA herriaren ekialdean dago. Gaur egun ikus dezakegun tenplua batez ere XVI. mendean eraiki zen, Erdi Aroko jatorrizko egitura aprobetxatuz. Aurrekoa txikiagoa zen, eta hala egiaztatzen dute oinetan eta burualdetik hurbil diagonalen ikusten ditugun kontrahorma handituek. Burualdea nabea baino estuagoa da, eta, ziurrenik, Erdi Aroko burualdea ixten zen lekuan hormaren trinkotasuna ikus daiteke. Hipotesi hori Arkitekturaren Arkeologiak baieztatu edo ezeztatu dezake. Baina argi dagoena da elizaren historia argitzen eta hormek esaten digutena ulertzen lagunduko ligukeela.

Erdi Arokoa da mendebaldeko hormapikoan dagoen portada. Arku apur bat zorrotza da, lau arkibolta bake-toidun ditu, lisoak eta apaindurarik gabeak –lehenengoak soilik ebakidura bikoitza du biraketan–. Eskema horren sinpletasunak jarraitu egiten du eta horma bertikalean zeharkatzen du, baoaren bi aldeetan, beste lau baketoi eratuz. Baketoi horietan arkiboltak eusten dira. Horiek bereziz inpostaren lerroa dago, hori ere lisoa. Baoan erremate moduan arku behekatua gehitu zen, ia-ia ateburu itxurakoa, eta horren eta arku zorrotzaren artean tinpano lisoa osatzen dute, apaindu gabea, jatorrizko Erdi Aroko portadaren

LA IGLESIA DE ETURA está situada al Este del pueblo. La construcción del templo se realizaba principalmente en el siglo XVI, aprovechando la estructura medieval primitiva, de dimensiones más reducidas como lo demuestran los contrafuertes recrecidos que vemos, en diagonal, a los pies y próximos a la cabecera. Esta cabecera, más estrecha que la nave, deja ver la consistencia del muro donde, sin duda, se cerraba la cabecera medieval, hipótesis que la Arqueología de la Arquitectura podría corroborar o echar por tierra. Pero lo que sí está claro es que nos ayudaría a desvelar su historia y a comprender lo que nos dicen sus muros.

A esa época medieval pertenece la portada del hastial de poniente. Es un arco ligeramente apuntado formado por cuatro arquivoltas baquetonadas, lisas y sin motivos ornamentales –solamente la primera lleva una doble incisión en su volteo–. La sencillez de este esquema continúa y recorre en vertical el muro a ambos lados del vano, formando cuatro baquetones que sirven de apeo a las arquivoltas y que se encuentra separado de ellas por la línea de imposta, también lisa. En el vano se añadió como remate un arco rebajado, casi en dintel, formando entre éste y el arco apuntado un tímpano liso, sin decorar, que distorsiona el conjunto de



*Elizaren ikuspegi orokorra / Vista general de la iglesia*

multzoa distortsionatuz. Distorsio hori indartuta dago baa itsututa dagoelako, ate hori 1704an "paretarekin itxi zen eta". Horrez gain, tenpluaren oinetan atxikitako areto batek ezkerreko aldea ezkututzen du.

Portadan, erromanikoaren pertzepzioa ia oharkabea da, portadaren osagaiak direla bide ezin dugu-eta denbora gelditu. Portada bizia da, hainbat aldiri buruz hitz egiten digu, herri honetako eta bertako biztanleen istorioei buruz. Sentipen hori eraikin osoan aplikatu daiteke, hormetako euskarrien, handitzeen eta kontrahormen markek tenpluaren historiari buruz ikertzeko gonbita egiten digutenez gero.

Iparraldeko horman, eraikinaren oinetan, dorre bat dago, "erdiko dorrera" igotzeko eskailerarekin, kanpaien gorputzean bi pareta soilik ditu eta. Eskailera horren gainean Erdi Aroko jatorrizko kanpandorrearen aurriak daude. Aurrerik barrualdetik ere ikus daitezke, tenpluaren teila-tuaren altueran. Elizaren barruan, arkitektura-osagaiak XVI. mendeko esku-hartzeari eta XVIII. mendeko ukitu neokla-

la portada primitiva. Esta distorsión se refuerza al encontrar el vano cegado, ya que esta puerta se inutilizaba "cerrándola con pared" en 1704. Una pequeña dependencia adosada a los pies del templo oculta su parte izquierda.

Estamos ante una portada donde la percepción del románico pasa desapercibida, ya que los elementos que la componen no permiten que nos detengamos en el tiempo. Es una portada que habla de diferentes épocas, de la historia de este pueblo y de sus gentes. Esta sensación es aplicable al conjunto del edificio, donde las marcas de soportes, recercidos y contrafuertes que se conservan en sus muros, nos invitan a indagar e investigar sobre la historia del templo.

En el muro norte, a los pies del edificio, se encuentra un torreón que alberga la escalera de acceso a la "media torre", ya que sólo tiene dos paredes en el cuerpo de campanas. Sobre la escalera quedan los restos y la marca de la primitiva espadaña medieval, también visibles desde el interior, a la altura de la entrecubierta del templo. En el interior los elementos arquitectónicos corresponden a la



Portada / Portada

sikoei dagozkie. Burualdean, pinturak kontserbatzen dira gangaren loturetan: gruteskoek eta medailoiek osatutako apaindura-motiboak dira. Oinetan, erdi-puntuko arku batek adierazten digu non dagoen kanpoko portada erromanikoa, eta horma-hilobi txiki batek, epistolaren aldean, bataiarria hartzen du.

Bataiarria Araban gehien hedatutako ereduari dagokio. Kopa esferaerdi formakoa da, lisoa, eta nukleo zentrolean oinarrituta dago. Horretan zortzi zutabetxo atxikita daude, eta, harroin antzera, elkarri lotutako zirkuluerdiak osatzen dituzte. Zutabeen artean kadentzia sortzen da, batek zulo itxura du, eta hurrengoak, angelu itxura. Multzo osoaren oinarria zirkularra eta molduratua da.

Testua eta argazkiak: RHA

#### Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 116; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 35; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 428-430.



Bataiarria / Pila bautismal

intervención del siglo XVI y a los maestros neoclásicos del XVIII. La cabecera conserva pinturas en los plementos, que forman los ligamentos en su bóveda: son motivos ornamentales a base de grutescos y medallones. A los pies, un arco de medio punto señala dónde se encuentra la portada románica exterior, y un pequeño nicho, en el lado de la epístola, cobija la pila bautismal. La pila bautismal corresponde al modelo más difundido en Álava. Está compuesta por una copa semiesférica, lisa, que apoya en un núcleo central, al cual se adosan ocho columnillas que forman semicírculos unidos. En los intercolumnios hay una cadencia, alternando uno en forma de silo y otro en forma de ángulo. La base de todo el conjunto es circular y moldurada.

Texto y fotos: RHA